



sagardotegiak sagardo gipuzkoa

Sagar Eguna Irungo Ola Sagardotegian

2014-09-22 | Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte

Datorren igandean, irailaren 28an Irungo Ola sagardotegian.

Ikusi EGITARAUA



Sagar biltze eta sagardoa egiteko sasoian sartuta, urtero bezala irailaren azken igandean, hau da 28an, **Sagarraren Eguna** ospatuko da Irungo Ola Sagardotegian.

Ekintza ezberdinen artean, ondorengoak topatuko dituzte bertaratzen direnak.

- 50 sagar mota ezberdinen erakusketa.
- Txertaketa mota ezberdinen azalpena.
- Pitarra eta zizarra nahi adina edateko aukera.
- Txistorra pintxoak.
- Umeentzako jolasak.
- Sagardo monobarietaleen dastaketaren azalpena.
- Beste hainbat ekimen, guztia trikitixak lagundurik.

Hau guztia arratsaldeko 17:00 etatik aurrera izango da Irungo Meaka 102 auzoko Ola sagardotegian.

Informazio gehiago nahi duenak 943 62 31 30 zenbakian.